

LANDA EREMUKO IKERKETA GUNEA

Ideiaen Aurkezpen Mintegia

Azaroak 6_Lekaroz

- Errelatoria -

XXI. mendearen hasiera honetan, azkeneko hamarkadatan ez bezala, landa-inguruneak gizartearen interesa sortu du eta hala agenda publikoan kokatu da.

Baztango Udalak Nafarroako Gobernuko Enpresa Politika, Nazioarteko Proiektzio eta Lan Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin Lekarozko kanpusean kokatuko litzatekeen erreferentziatzko gunea sortzeko ideia du, landa-ingurunean interesa duten eragile akademiko, instituzional eta sozialen lankidetzat antolatuz.

Hori dela eta, azaroaren 6an Lekarozen landa eremuko ikerketa gunearen aurkezpen Mintegia ospatu da. Jardunaldiaren helburua, balizko gunearen proiektua partekatzea, proiektua aberastuko duten ekarpen guztiak jasotzea, hasiera batean landuko diren tematikak identifikatzea (edo finkatzea) eta proiektua aitzinaraziko duen "talde eragilea" eratzea izan da.

Honakoa izan da Mintegian jarraitu dugun egitaraua:

9:30etan ONGI ETORRIA	
10:00etan LEKAROZEKO LANDA EREMUKO IKERKETA GUNEAREN IDEIA	Proposamena eta lerro nagusien aurkezpena
10:30etan PROSPEKTIBA ARIKETA ETA SOLASALDI IREKIA	Partaideen ikuspuntu, iritzi eta ekarpenak aztertu dira
11:00etan KAFFA eta BALIZKO EGOITZARA BISITA	
11:45etan PROIEKTUAREN GARAPENA	Gunearen gauzatze prozesua eta Lan-mahaiak
14:00etan BILERA AMAIERA	
14:30etan PARTE-HARTZAILEEKIN DASTAKETA	

Aniztasun handia izan da parte hartzaileen artean. Alde batetik, eragile sozial ezberdinak gerturatu dira, besteen artean, Bidezko Elikadura, Emagin, Baztango Zaporeak, Kanpoko Bulegoa, Etxalde, Aranzadi, etab. parte hartu dute Mintegian. Bestetik, EHU eta NUPeko ikerlariak gerturatu dira, ingeniariak, ekonomia, nekazaritza, soziologia, ondare eta paisaia kulturala, arkitektura, biologia eta landa garapen arloetatik. Bestalde, Nafarroako Gobernuko ordezkariak ere izan dugu, baita Cederna eta Intiako kideak ere.

Goizaren lehen zatian Lekarozeko landa eremuko ikerketa gunearen lerro nagusien proposamena aurkeztu da. Ondoren, prospektiba ariketa bat egin da, solasaldi irekian partaideen ikuspuntu, iritzi eta ekarpenak aztertzeko. Hausnarketa bideratzeko, bi galdera nagusi plazaratu dira:

- *Zeintzuk dira zure ustez Euskal Herriko landa eremuak garapen ona edota eremu bizi bat lortzeko dituen indargune eta ahulgune nagusiak?*
- *Zeintzuk dira, zure ustez, Euskal Herrian Landa eremu bizi bat bermatzeko egin beharko liratekeen ikerketa eta Berrikuntza proiektu nagusiak, beti ere etorkizuneko erronkei baldintza onenetan aurre egin ahal izateko?*

Hona hemen solasaldi ireki honetatik jaso ditugun ideia nagusiak:

Ahulguneei dagokionez,

Landa eremuaren gainbehera aipatu da, eta mundu mailako eszenatokia aintzat hartuz, **krisialdi sistemiko** batez hitz egin dezakegula azaldu da, kolapsoaren hipotesia jasotzen duen krisialdi sistemikoa.

Hiri-zentrismoaren eragin zuzenak landa guneari egiten dion kaltearen inguruan ere hausnartu dugu. Politika publikoak eta legeak hirietan eta hirientzat pentsatzen dira eta horrek landa guneari zuzenean eragiten dio. **Ikuspegi urbanoa nabari da** proiektuak garatzeko orduan. Azken finean, landa guneari ez dagokio hirigunea imitatu edo honekin konpetitzea. Azken urteetan, parametro urbano ugari transferitu nahi izan dira landa gunera, eta bizileku-eremuak bilakatu dira. Ezartzen diren irizpideak hiriguneetan pentsatuz ezartzen dira, bai hezkuntza zein osasun arlokoak (ikasle kopurua, arta kopurua, etab.), eta hau ahulgune handi bat da landa gunearentzat.

Jarraiki errepikatu den beste ahulguneetako bat **populazioaren zaharkitzea** da, are eta gehiago landa gunean kokatzen bagara. Horrez gain, gazteen artean hirira bizitzera joateko joera lehenesten da. Horregatik, asko zailtzen da biztanleria landa gunean errotzea. Gainera, hiria eta landa gunearen arteko mugak oso nahasiak dauden honetan, landa **gunea gazteentzat erakargarritasuna galtzen ari da**. Besteen artean, zerbitzu publikoak hiriguneetan kokatzen dira, eta ez da erraza suertatzen landa gunean zerbitzuak modu erosoan eskuratzea, **desoreka ugari** daude. Mendialdean gazteek beren burua landa gunean ez dutela kokatzen ikusi da, eta ez da lan aukerak falta direlako, irudikapen arazo bat da, hau da, faktore subjektibo bat da. Horrela, mendialdeko eremu batzuk despopulatzen ari dira.

Zaintza ereduaren, eta orokorrean bizitzaren, **erreprodukzio krisia** ere aipatu da. Hau guztia populazioaren zaharkitzeari lotuta. Baita adineko emakumeek jasaten duten indarkeria egoera ere.

Tokiko elikadura sistemei dagokionez, **begirada estrategikoa** falta dela adierazi da. Ez da fokoa lurralde egituran pausatzen. Hau da, epe luzeko eta Euskal Herri mailako ikuspegia falta dela uste da. Orokorrean, **lankidetzahula** da eragile ezberdinen artean duguna. Ildo horretatik, eragileen artean egon daitezkeen liskarrak ere aipatu dira, lan prozedura eta programek zaildu egiten dute proiektuak aurrera ateratzea. Ez da erraza suertatzen ekimen pribatuetatik baliabide publikoak erabiltzea edo mugitzea. **Eremu publikoa eta pribatuaren arteko distantzia** handiari egin zaio erreferentzia. Baita, unibertsitatea eta lurraldearen arteko urruntasunari ere.

Azkenik, aipatzekoa da gure inguru hurbilean **erreferentziarik ez izatea** ahulgune gisa kontsideratzen dela, eta aldi berean, kanpoko esperientzietan oinarritzeak zailtasunak dakartza. Gaur gaurkoz ez dago ingurune hurbilean landa gunearen inguruko hausnarketa egiten duen gunerik. Horrez gain, **jakinduria oso zatikatua dagoela dirudi**, hau da, aditu bakoitza bere eremuan lanean dihardu. Horregatik, pentsamendu genuino baten falta nabari da, esparru geografiko bakoitzak bere ezberdintasunak dituelako.

Indarguneei dagokionez,

Landa guneari natur baliabideekiko duen irisgarritasunean jarri da arreta, eta ildo horretatik, **natur baliabideen kudeaketa komunitarioari eusteko beharra** azpimarratu da, Nafarroan oraindik mantentzen diren komunalak esaterako. Euskal Herrian krisi egoerei modu kolektiboan erantzuteko dugun kulturari erreferentzia egin zaio. Ildo horretatik, elkarrekin **modu kolektiboan gauzak egiteko dugun indargunea** aipatu da, besteen artean, auzolana eta komunalak. Landa gunean bizitzeak suposatzen duen elkartasuna, lan kolektiboa edota aspektu tradizionala indargune gisa kontsideratuak izan dira. Bitartekoak, jakintza, eta gogoia ditugu.

Horrez gain, landa guneari duen **kalitate ekologiko potentzial handia** azpimarratu da, kudeaketa jasangarri baten ondorio den gaitasun ekologikoa. Ildo horretatik, lan aukerak sortzen dituen eremu bat da. Bizi kalitatea bermatzen duen eremua. Ingurune aberatsa da, eta gainera, euskalduna. Zentzu horretan, **gizartea trinkotzeko gaitasuna** duen ingurunea da. Hau da, landa eremuko gizartea ez da jende atomizatua, baizik eta

lurraldera errotuta aurkitzen den jendartea da.

Beraz, landa eremua baliabide natural anitzetan aberatsa da, lurra, ura, klimatologia, etab. nekazaritza eta abeltzaintza sektoreak garatu dira, eta ekoizle eta kontsumitzaileen arteko elkartrukeak ematen diren gunea da. Beraz, **tokiko elikadura sistema iraunkorrek definitzeko aukerak eskaintzen dituen esparrua** da.

Hiri guneen eta landa eremuaren arteko gertutasunak, hainbat aukera sortzen dituela ere adierazi da, besteen artean, merkatu handiak landa eremutik gertu kokatzea.

Landa gunek **zaintza kolektiboaren esparruan irekitzen dituen aukerez** ere mintzatu gara.

Horrez gain, Lekarozek **oinarri kultural sendo bat** eskaintzen digula esan da, iparralde eta hegoaldearen artean kokatzen delako. Gainera, proiektuari dagokionez, esperientzia interesgarri eta erreferenteak ditugu, baliabideak ditugu, eta tokiko gizartea gauzak egiteko gogoarekin dagoela dirudi. Garrantzitsua litzateke, **jakinduria tradizionala berreskuratu** eta berrikuntzaren bitartez jakintza tradizional hori gaur egunera ekartzea, *Retro-berrikuntza* deiturikoan zentratzea. Landa gunea **berrikuntzarako esparru interesgarria** dela azpimarratu da, gizarte garaikidearentzat interesgarri suertatzen den eremua delako.

Ikerketa eta Berrikuntza proiektu nagusiak,

Hainbat ideia eta proiektu proposamen plazaratu dira. Hala ere, **ikerketa edo proiektu praktikoak lehenesten dira**, eskualde mailakoak, **burujabetza lokalak sustatu ahal izateko** (elikadura burujabetza eta energia burujabetza aipatu dira). Tokikoekin garatzen den ikerketa eta tokira egokitutakoa. Proiektu tekniko-produktiboen beharra aipatu da, eta baita ekimen komunitarioena ere, betiere instituzioen babesaren baitan ondutako proiektuak. Ildo horretatik, komunalen inguruko gogoeta sustatzea aurreikusten da (adibide modura), ez baitute behar bezalako oihartzun publikoa hartu.

Zentzu horretan, auto-sustenguan eta auto-kudeaketan oinarritutako proiektuak izan behar dira, sistema fraktalak irudikatzearen beharra azpimarratu da. Hainbat eremutan landu beharreko egiturak dira, energia, elikadura sistema, hondakinen kudeaketa, irisgarritasuna, etab. hau da, **eredu des-zentralizatuak egituratu** behar direla adierazi da. Beraz, adineko pertsonen dituzten arazoak gainditzeko baliabideak eskaini behar zaizkiela azpimarratu da, besteen artean, gizarte zerbitzuak eskuragarri jarritz, esaterako sistema ibiltarien bitartez.

Aurreko ideiarekin lotuta, **landa eremua landatasunetik sortu behar** dela adierazi da, bizi eredu ezberdinak aintzat hartuz, bizimodu ezberdinak bizi nahi direlako. Landa eremua elikagaien ekoizle dela lehenetsi behar da, ildo horretatik, errelebo itinerario berriak sortu behar dira, **eta biziak proiektuak duintasunetik eraiki**. Kontuan hartzekoa da, landa eremuan ere biztanleriaren aldaketa bat ematen ari dela, **mugimendu migratorioak** nabari dira, eta elkarbizitzarako berebiziko garrantzia duen aldagaia da.

Beraz, **biztanleria landa gunean errotzeko baldintza egokiak** zein diren aztertu beharko litzatekeela uste da. Kontuan harturik, biztanleriaren zati bat hiritik iristen den populazioa dela, eta landa gunearekin harremanik izan ez duen sektorea. Beraz, epe motz eta luzean **landa gunean bizitzeko zer nolako agertokiak eraiki behar diren** hausnartzea ezinbestekoa dela uste da. Gainera, landa gunearen gainbeherak kulturarekin harreman zuzena duela uste da, beraz ezinbestekoa kontsideratzen da landa gunekoa izatearen harrotasuna suspertzea.

Etorkizuneko erronka **tokiko elikadura sistemak egituratzea** da, praktikotasunetik. Ildo horretatik, Euskal Herriko landa eremua erreferentzia eta esparru bikaina dela esan da. Laborantza Ganbarak 2050 urterako Ipar Euskal Herriko elikadura sistema lokala irudikatzeke egindako azterketa aipatu da, nekazaritza antolaketa eta dieta aldaketa kontutan hartuta irudikatutako eszenatokia. Ikerketak martxan jarri eta bideratzeko mekanismoen beharra azpimarratu da. Landa eremua indartzeko, **tokiko elikadura sistema iraunkorrek garatzearen beharra** ikusi da.

Berrikuntzan oinarritutako ikerketa lehenetsi da, landa gunea hirigunetik aterako duen **eredu berritzaileen**

inguruko gogoetaren beharra azpimarratu da. Tradizioaren inguruko ikerketan zentratzea garrantzitsua ikusten da, **tokiko jakintza tradizionala berreskuratzea**, eta baita ondare materiala ere. *Retro-berrikuntzari* lotutako proiektuak definitzearen beharra aipatu da. Baita **ekonomia zirkularra indartzearen garrantziaz** ere, besteen artean, erabiltzen ez ditugun hainbat eta hainbat baliabideen erabilpena sustatzeko proiektuak (artilea, iratzea, hondakinak, etab.).

Behin baino gehiagotan aipatu da ekonomia zirkular aplikatuan sakontzearen beharra, bai banaketa eta logistikaren ikuspegitik, baina baita etxebizitzan fokoa jarriz ere. Bide horretan, **merkatutzeko bide berriak irekitzeko aukerak eta neurriak** aztertu beharko liratekeela uste da. Etxebizitzaren gaiari dagokionez, baserrietarako sarbideak oztopo ugari dituela aintzat hartu behar da. Ildo horretatik, **etxebizitza eredu berrien inguruko ikerketan** sakontzearen beharra azpimarratu da. Hala ere, kontuan hartu behar da, zenbait ezberdintasun daudela zer egin nahi dugun eta zer egin dezakegunen artean, garrantzitsua ikusten da **aukera errealean gainean lan egitea**.

Ikerketa feministaren garrantzia ere azpimarratu da, landa guneko emakumeen posizioa eta gorputz disidentziak. **Bizitzak erdigunean jarriko dituzten sistemak egituratzearen beharra** aipatu da. Horretarako, zaintza lanen antolaketari lotutako diagnosiak egitearen garrantzia azaldu da, berdintasunean oinarritutako ekintza planak garatzeko. Ildo horretatik, lan komunitario publikoaren eta pribatuaren arteko ezberdintasunak ondo markatzearen beharraz hausnartu da.

Horrez gain, garrantzitsua ikusten da lurralde antolaketa eta hizkuntzaren eragina kasu konkretuetatik atera eta ikerketa eremua zabaltzea. **Herri euskaldun eta ele-aniztasunaren indarguneak** agerian jartzearen beharraz jardun dugu. Ildo horretatik, ele-aniztasuna masiboki erabiliz, gazteen motibazioa indartzearen beharra aipatu da. Alderantziz ere, mundu mailan interesa pizten duten bestelako gaiak, aldaketa klimatikoa, basoaren eragina, ur edangarriaren kudeaketa, etab. eskualdera ekarri eta bertan aztertzeko beharra ere adierazi da.

Amaitzeko, definizioen gainean egin beharreko lan handia mahai gaineratu da, **hiztegia komuna sortzearen beharra** azpimarratu da. Horrez gain, elkarreztatik haratago, gune profesional bat sortzearen beharra adierazi da, proiektu zehatzak martxan jartzeko orduan ere, espazio mistoak sortzearen premia.

Goizaren bigarren zatian gunearen gauzatze prozesuan eta Lan mahaien egituratzean zentratu gara. Hiru Lan mahaitan banatzea proposatu da:

- Aplikazioa / Landa eremu bizi baterako Lan mahaia
- Disziplinarteko Lan mahai akademikoa
- Espazioa eta babes instituzionalerako Lan mahaia

Lan mahaien arteko komunikazio eta deskonexioen inguruko kezka plazaratu da. Talde bakoitza funtzionalago egite aldera, bestelako antolaketa eredu bat proposatu da, proiektuak, formazioa, eta aplikazioa kontuan hartuko dituen eredu adibidez.

Lan mahaietan ondorengo galderaren inguruan hausnartu asmo izan da:

- *Zein ekarpen egin ahal diogu lan-mahai honetatik ikerketa guneko proiektuari?*

Hiru taldetan elkartu ondoren, bakoitzean eztabaidatutako gai nagusiak elkarbanatu dira:

Aplikazioa / Landa eremu bizi baterako Lan mahaia

Talde honek ikerketa gunearen baitan pisu esanguratsua behar luke, eragileen lan taldea da landa eremuko komunitatetik gertuen dagoena eta, beraz, beharren identifikazio errealea duena. Horregatik, ikerketak bideratzeko norabideak honakoa beharko lukeela uste da: identifikatu (eragile taldea), ikertu (talde akademikoa)

eta babestu (talde instituzionala).

Harreman hierarkikoa dago instituzio, akademia eta eragileen artean. Horregatik, logikari buelta eman behar zaio. Ikerketa gunearen sorreran badago nahi hori, horregatik aurkezpenean ere aipatu da *jakintza ekologikoa* eta *ikerketa parte-hartzailea* baina, erronka hori gauzatzean dago (ideiak abstraktuak errealitate bihurtzea).

Gobernantza eredu berria behar da. Ze gaitasun izango dute eragileek erabakimenerako? Iritzia ematetik haragoko pausuak eman behar dira. Hein handi batean horrek bermatuko du eragileen parte hartze aktibo eta iraunkorra.

Funtzioak:

1. Norabidea finkatu eta ikerketak bideratzea

- Mikroproiektuen edo proiektuen definizioak landuko diren gunea.
- Proiektuen planifikazioa eta bideragarritasuna.

2. Euskal Herri osoko begiradarekin lan egitea (3 administrazioak kontuan izanik eta zubiak eraikiz)

- Adibidez: nola eraikitzen da gure elikadura sistema? Ze ezberdintasun daude hiru administrazioen artean, nola elkarlotu eta nola gainditu oztopo administratiboak? Antolatu genezake lurralde osoari erantzungo dion elikagai-banaketa sare bat?

3. Toki ezberdinetako esperientziak saretuko diren gunea

- Esperientzia konkretuen saretzetik abituz, arazo estrukturaleri erantzungo dien proiektu estrategikoak garatzea. Izan ere, tokiko ekimen asko daude (antzekotasunekin eta berezitasunekin), baina gehienek oztopo bertsuekin egiten dugu topo.

4. Eztabaida gunea, ikuspegi ezberdinak partekatu eta eztabaidatzeko

- Elikaduraz gain, ze beste gai landu litezke gune honetan?¹
- Azpi lan talde estrategikoak osatu, gaiaren arabera. Baina, asmatu beharko da hauen arteko komunikazioan, zeharkakotasunez gai ezberdinak landu daitezela eta indarrak partekatzeko.

5. Ikerketa parte hartzaileak gauzatzeko gunea

- Eredu praktikoak martxan jartzeko gunea izan behar du, teoriatik praktikarako salto emateko gunea.
- Teoria badugu, lan ildoak ere gutxi edo gehiago zehaztuak ditugu, baina praktikara eramateko arazoak ditugu.

Disziplinarteko Lan mahai akademikoa

Gizartearen eskari batetik datorren proposamena izanik, balio handia duen proiektua dela adierazi da. Prozesu progresiboan landu beharko litzatekeen proiektua dela uste da: a) elkarrekin lan egiteko borondatea indartu b) "hizkuntza" bera, terminologia bera erabiltzea ahalbidetu c) askotan informazio erredundantea jasotzen dugu, estatistika aplikatuz hori landu.

Horrez gain, ikerketa guneak beharko litzatekeen baliabideak ere zerrendatu dira:

- Proiektu teknikari bat.
- Idazkari bat.
- Informatikari bat.
- Baliabide digitalak, datu-baseak... hau da, infrastrukturak.

¹Parte hartzaileen ibilbideagatik, elikadura sistemaren azterketan eta adibideetan asko zentratu gara.

- ...

Bestetik, ikerketa gunearen lurraldetasunaz hitz egin da, Baztanen kokatuta egotearen alderdi positibo eta negatiboez hausnartu da:

- Erreferentzia fisiko bat ona da.
- Toki ona izan daiteke Iparraldea eta hegoaldea lotzeko.
- Hasieran Baztanen kokatzea egokia ikusten da. Progresiboki zabaldu daiteke.
- UEUren antzeko zerbait izan daiteke bidea.

Funtzioak:

1. Aterki bat elkarrekin parte hartzeko... elkarren lana ezagutzeko...

- Plataforma bat proiektuak garatzeko.
- Espazio fisiko bat elkartzeko.
- Proiektu-kideak elkartzeko gunea.
- Gure proiektuak elkar-trukatzeke eta amankomunean jartzeko.

2. Hizkuntza amankomuna garatzea ahalbidetuko digun gunea, afera erregularrak amankomunean jarri eta elkar ulertzen lagunduko diguna.

- Alde soziala oso gutxi aztertzen da.
- Balio sozialak eta ekologikoak... uztartzeko gunea izatea.
- Eta norabide ezberdinetan elkar-elikatu.

3. EHU eta NUP arteko elkarlana uztartzeko bide bat izan daiteke zentro hau, behar den forma juridikoa emanaz, proiektuak kudeatzeko, titulu propioak garatzeko...

- UEU izan daitekeen bezala, transbertsala, bi unibertsitateen artekoa. Betiere landa-eremuari buruzko Ikerketa sustatuz.

4. Disziplinen arteko elkarlana garatzeko gunea

- Eragileei entzun, eragile ezberdinak elkar elikatuz lana egiteko gunea.
- Arazoaren aurrean jakintza arlo ezberdinen artean elkarlana garatzeko gunea, interdisziplinaritatea
- Eredu eta metodologia berriak garatzeko gaitasuna izango duen gunea. Lan estatistikoa garatzea garrantzizkoa ikusten da, aldagai askoren arteko korrelazioa aztertzeko.

5. Formatzen ari diren ikertzaileentzat (PRE eta POST-Dok) egonaldia, bekak... eskaintzeko gunea

6. Proiektuak gizarte eragileei lotuta garatu behar dira, eta lotura horrek emango dio erreferentzialtasuna guneari.

- Akademia eta gizarte eragileen arteko elkargunea edo erlazorako gunea.
- Eragile sozialak gaiak sortu, eta guk garatu.
- Elkarlan horizontal baten bidez landan oinarritutako diagnosi bat garatu, arlo ezberdinetatik ideiak jasoz. Ikertzaileok diagnostiko bat egiteko gaitasuna badugu eta hori guk abiatu behar dugu. Eragile sozialek ikuspegi atomizatuago batetik ikusten dituztenak guk uztartu.

7. Ikertzaileok saretze lana egin behar dugu. Kanpotik ideiak ekarri, partekatu.

Espazioa eta babes instituzionalerako Lan mahaia

Diru laguntzen inguruan, martxoan Nafarroako diru laguntza bat lortzeko aukerak daude, definizio puntuan gaude zein departamentutatik iritxiko den erabaki behar delako. Hala ere, badirudi kontu soil arruntetan mozketak aurreikusten direla. Garrantzitsua da proiektua iraunarazteko moduak zehaztea, gastuei aurre egiteko diru

laguntzak bideratzea.

Funtzioak:

1. Gobernuako teknikariek **dirulaguntza ezberdinen berri ematea**, eta martxan jarritako ekintzak ere gobernura bideratzea.
2. Gobernuaren inplikazioa departamentu ezberdinetan eman daiteke, **hauek zerrendatu beharko lirateke eta bakoitzaren interes maila baloratu.**
3. Garrantzitsua da mugaz gaindiko proiektu gisa planteatzea, **administrazio ezberdinak inplikatu ahal izateko.**
4. **Komunikazioa bi zentzutan eman beharko litzateke**, alde batetik barnera begira, mahaietan garatzen dena lan talde ezberdinetan partekatuz. Eta bestetik kanpora begira, zilegitasuna lortzeko helburuarekin.
5. Gobernantza eredua definitzearen garrantzia. **Eragile eta erakunde ezberdinen zerrendaketa bat egin eta ikerketa gunearen narratiba zehatza sortzea.**
6. Egingarria eta gauzagarria ikusten da, baina garrantzitsua da **Nafarroako gobernuako pertsona zuzenak identifikatzea.**

Lan mahaien egonkortze prozesuan aurrerapausoak emateko, hurrengo Mintegiaren data **Abenduak 18**an jarri dugu, goizeko **9:30tan hasita**, berriro ere **Lekarozeko Kanpusean**.